

**KUN BANG SHANG TIAN TANG / BOUND IN HEAVEN (ZERUARI LOTUTA) • Txina**

Hou Xin (zuzendaria, gidoilaria), Ni Ni, Zhou You eta Liao Fan (antzezleak), Justine O. (ekopizlea), Han Lee (ekoizle elkartua)

SERGIO BASURKO

Bound in Heaven-en sinopsia irakurtzen duzunean eme jartzen zara. Gaixo terminal batez, indarkeriak harrapatutako emakume batez, ustekabeko gertakari baten ondoren ihes egiteaz eta heriotzaren hondamenaz hitz egiten du. Izan ere, datu horiekin, filmak melodramoi tragiko, efektista eta lizunaren itxura du. Baina ez. Sinopsian aipatutako elementu horiek guztiak badaude, baina Huo Xinen eszenaritze dotore eta errespetuzkoak *Bound in Heaven* maitasunaren eta heriotzaren inguruko drama neurriduna ahalbidetu du. Beraz, bizitzaren azken uneetan bizitako maitasun istorioa bat da Huo Xinen lehen luzemetraia.

Filma ikusten duen oro poztu egingo da maitasun hutsezko istorio polit bat ikusteaz, argazki ikusgarri batekin eta "protagonistak zerutik ikusten direla simulatzen duten plano zenitalekin", esan du zinemagileak.

"Eleberri bat inspirazio iturri izan nuen. Duela ia hogeitun urte idatzi zen eta gaurko egunera egokitu behar izan dut. Zentzu soziala ere badauka eta garai hartako testuingurua oso ezberdina da. Ondorioz, edukia aldatu dut. Erronka asko aurkitu ditut bidean baina uste dut hau zela modurik onena", azaldu du.

Pentsaurrekoan, Ni Ni eta Zhou You aktoreek ere parte hartu dute, eta Huo Xinekin izandako lehen elkuntza nolakoa izan zen gogorarazi dute. "Ikusi gintuen lehen aldian, esan zidan ni izango nintzela bere filmeko aktorea. Ni Txinan ez naiz oso aktore ospetsua, eta ezin nuen sinetsi, baina agindu nion onena emango nuela. Espero dut huts egin ez izana", adierazi du Zhou Youk.

Ni Nik ere lehen aldian du Huo Xinekin lan egin duena. "Oso eroso egon naiz, atsegina izan da filmake-

Maitasunezko eta heriotzazko istorio ederra



Ezker-eskubi Liao Fan, Ni Ni eta Zhou You aktoreak eguzkitako betaurreko beltzekin, erdian Hou Xin zuzendaria begi hutsik.

ta. Hasieratik konfiantza eman dit. Oso pertsonaia desberdina da aurretik egindako edozein pertsonaiekin alderatuta. Zuzendaria oso sentibera da eta begiradaz behar duena adierazten dizu. Begien bidez soilik, ez du hitzen beharrik", kontatu du.

Gainera, nazioarteko eszenatoki batean bere filma pantaila handi batean ikusi duen lehen aldian izan dela jakinarazi du. "Oso urduri eta hunkituta nengoen aldi berean. Ikusi ondoren, talde osoarekin besarkatu naiz eta bihotzez eskertu dut hemen egoteko aukera", aitortu du.

"Ni Nik eta Zhouk ñabardura zogarriak ematen dizkiete euren rolei, eta oso bikote interesgarria osatzen dute", gehitu nahi izan du zuzendaria.

Bestalde, Liao Fan aktoreak txantxetan esan du berari esan ziotela bera izango zela protagonista, baina azkenean ez dela horrelakorik gertatu. "Huo Xin duela 20 urtetik ezagutzen dut, gidoilari zenetik eta oso miresten dut. Testu onak idazten ditu. Zuzendaritza munduan sartuko zela jakitean, izugarri poztu nintzen; begi itsu onartu nuen papera, protagonistarena".

Harro, Huo Xinek esan du Txinan emakume zuzendariari dagokionean gero eta film eta telesail gehiago dardela. "Emakumeok gero eta indar handiagoa daukagu", azpimarratu du zinemagile ekialdearrak.

Bound to Heaven heriotzari aurre egiteko moduari buruzko filma da. Tokatzen ez den adin batean eta ez dagokion bizi-egoera batean. Eta horrek bikote-harremnari eta bizitzari aurre egiteko moduari nola eragiten dion. "Heriotzak banatzen gaituen arte" esaldia daukagu Txinan, amaitu du Zhou You aktoreak.

A poetic portrayal of a doomed romance

The Chinese director and scriptwriter Huo Xin is competing in the Official Selection with *Bound in Heaven* which she adapted from the novel of the same title by Li Xiuwen. The drama centres around a successful young woman who lives in the city with her abusive fiancé and a lonely terminally ill man running a noodle shop in Wuhan. At the press conference she gave yesterday alongside the actors from the film she explained that she had been attracted to the novel because it dealt with abuse and pure love, two subjects that she was interested in. The actors Zhou You and Ni Ni and Liao Fan all praised the director for the trust she had placed in them. Ni Ni highlighted her sensitivity and how Huo Xin could convey exactly what was needed. Liao Fan said he already knew the director in her previous facet as a scriptwriter and was immediately interested in working on what was her first film as a director. The filmmaker confessed that she had needed to significantly adapt the novel for the big screen in order to update it from 2006 to the present day as things in China had changed considerably in this time.



SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

HISPANITAS

CON EL CINE



PINO MONTESDEOCA
AW24/25 COLLECTION



WWW.HISPANITAS.COM

VISITA NUESTRA TIENDA CALLE ARRASATE, 21 | DONOSTIA